

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Hasierako onarpena ematea hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari

Udalbatzak, 2016ko azaroaren 3an egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari, salbuespenei eta hobariei dagokienez.

Espediente hori jendaurrean jartzen da hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek epe horretan aztertzeko eta, hala badagokio, egoki jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onartutako erabakia behin betiko onartutzat joko da.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2016ko azaroaren 7a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ